

**mipcom**
Urriak 3-6 octubre
Cannes

3 Koma
Pausoka
Baleuko
Expressive
Idem 4
Vilau
Bainet
K 2000
Sonora Estudios
Silverspace
Mediabask
InteracTVT

PRENTSA OHARRA

Basque Audiovisualen standa jarduera gune garrantzitsu gisa finkatu da Cannesko MIPCOMen, sektoreko nazioarteko azoka nagusietako batean.

- Bileren egitarauak, **Basque Audiovisualek** aldez aurretik antolatutakoak, merkataritza balio handiko topaketak egitea ahalbidetu du.
- Hamabi euskal enpresa joan dira aurten MIPCOMera, Basque Audiovisualen eskutik.

Bilbo, urriaren 5a. **Basque Audiovisualek**, Eikenek eta Etxepare Institutuak bultzatutako ekimenak, profesionalen arteko topaketen egitaraua abiarazi du, aurtengo MIPCOMen. Azoka egin baino lehen kudeatutako topaketa hauen xedea euskal enpresei ahal bezain beste aukera ematea da, kanpoko merkatuetara sartzeko. Ekimen honen bitartez, Basque Audiovisualen standean ehun bilera baino gehiago egin dira nazioarteko erosle, banatzaile eta koproduktoreekin.

Aurtengo MIPCOMen, merkataritza harremanak izan dira Frantzia, Australia, Ingalaterra, Kanada, AEB, Herbehereak, Danimarka, Singapur, Malaysia, Katar, Turkia eta Gales bezalako herrialdeetako pertsonekin. Azokan, berriz, hamabi euskal konpainia egon dira: **3 Koma, Baleuko, EiTB, Expressive, Idem, IntecTVT, K 2000, Mediabask, Pausoka, Silverspace, Sonora** eta **Vilau**.

“Matchmaking” ekimen hau aurrera eraman ahal izateko lanak horrelako topaketetan espezializatutako britainiar enpresa batek egin zituen, nazioarteko hitzordu garrantzitsu honen aurreko hilabeteetan. Enpresak harreman zuzenak izan zituen euskal enpresekin eta beren produktuekin. Hala, Basque

Audiovisual standean egondako enpresen berezko salmenta lanek babes garrantzitsua izan dute.

Ahalegin horren saria akordioen sinadura izan da; horien artean, nabarmendu behar dugu Durangon egoitza duen Baleuko enpresak eta Malaysiako Cartoon 4Kids enpresak sinatutakoa. Gaur, Carlton Hotelean aurkeztu da akordioa, eta, Malaysiako sormen enpresei harrera egiteko koktelean, Malaysiako Gobernuaren Kultura, Komunikazio eta Informazio Ministerioaren idazkari nagusia egon da.

Gaur egungo TBren etorkizuna

MIPCOMeko gainerako jardueri dagokienez, Basque Audiovisualen arduradunek “Gaur egungo TBren etorkizuna” hizpide izan duten hitzaldiak eta mahai-inguruak nabarmendu dituzte. Horren harira, MIPCOMek lau ataletan banatu ditu etorkizun hurbilean telebistari eragingo dioten alderdiak: finantzaketa, Internet bidezko telebista, kalitate handiko ekoizpena (edukiak), eta 3Dko telebista.

Era berean, ohi bezala, “Urteko Pertsonaia”ri aitormena egingo zaio, MIPCOMen. Aurten, Disney/ABC Telebista Taldeko zuzendarikide Anne Sweeney andrea aukeratu dute.